

Berrikuntza kurrikularra eta euskara-irakasleen prestakuntza

Joanba Bergara

Irakasleen heziketa ezinbesteko baldintza da berrikuntza kurrikularrik martxan jarri eta finkatuko baldin bada. Horixe erakusten digu argi eta garbi berrikuntza pedagogiko askok eta askok historian izandako arrakasta eta porroten azterketak. Beraz, hori aintzat ez hartzeak hasiera-hasieratik porrotera eramango gintuzke. Ponentzia hone-tan gai horri heldu nahi nioke Euskal Autonomia Erkidegoko hel-duen alfabetatze eta euskalduntzearen ikuspegitik; hau da, lehenean zer egin dugun, orain zertan ari garen eta geroak dakartzan erronkak azaldu.

Kontzeptuen zehaztapena

Formazioa

Lehenengo, eta sarrera gisa, kontzeptu-pare bat gogoetatu nahi nituzke.

Zer da termino horren mamia? Formazioaren kontzeptuak, bere zabal-tasun osoan, honako gauza hauek esan nahi izan ditzake: 1) irakasleak bere heziketa-garaian, bai obligaziozkoan bai obligaziorik gabekoan, izandako *bizikizunak*; agian bera ez da ohartuko baina izango dute seguraski indar handiagoko edo txikiagokoa (Bergara, 1992); espe-rientzia horien bitartez ikaskuntzari zein irakaskuntzari buruz lortu diren kontzeptuez ari gara; zein jardun pedagogikotara jarri den irakaslea; eta esperientzia horiek utzi dizkioten sentimentu-arrastoez; 2) hezkun-tzari buruz kalean dabilzan usteak; 3) lankideengandik eskuratutako ideiak eta lan-moduak; 4) ikasleei entzundako ideiak; 5) liburu-aldizkarietan bildutako irizpideak; 6) ikasgelan erabilitako baliabide didaktikoak; 7) irakasle-taldeak ikasaioak prestatzeko eta berorien emaitzak neurtzeko dituzten laneko harremanen sare edo egiturak; 9) eta, jakina, urteetako jarduna edo eskarmentua, eskarmentua baita biziaren ama.

Alderantziz, eta gauzei estuago begiratuta, termino horren esanahi akademizistago edo formalagoa etorriko litzateke. Ikaskuntza oinarri sendotan kontzeptualizatzeko, oinarri horiekin bat datozen prozedurak

eta irakasleak horiek erabiltzen ikasiko duela bermatzeko ahalegina adierazi nahi dugu termino horrekin. Begien bistakoa da, berehala azalduko dugun bezala, formazioaren arazoari ezin dakiokela taxuz heldu bi kontzeptu horien azpian dauden errealitateak aintzat hartu gabe.

Formazioa beharrezkoa al da?

Gaur egun gai hori ia axioma delarik, zozokeria hutsa emango du galdera horrek agian. “Ziur bageunde irakasle guztiek esperientzia hutsaren bitartez printzipio sendoak eskuratuko dituztela, ez genuke formazioaren beharrik izango. Baina, zoritarrez, hori ez da gertatzen”. Eta beste hau: “agian berez ondo hornitutako irakasleak ez du laguntza berezirik behar-ko, baina gehien-gehienek behar izaten dute” (Widdowson, 1979: 217-218). Eta, gainera, “metodo baten demostrazio hutsa egitera mugatuko bagina, nahiz eta behar den hainbat aldiz egin eta irakasleari itsu-itsuan bereganatuarazi eta erabilarazi, horren azpian dauden printzipoez ardura-tu gabe, oker handi bat egingo genuke; irakasleek printzipio finkoak behar baitituzte unean uneko metodoa erabiltzeko. Eta, irakasleak prin-tzipio horiek ez baditu, metodologia jakin baten ortodoxiari lotuta egon-go da; eta metodoen kontsumismo itsu batean ibiltzeko arriskuan” (Woodward, 1988).

Baina gai hau mahaigaineratu badut, formazioa bere *esanahirik hertsie-nean* (gorago azaldu den termino horren bigarren adieran) azpimarratu nahian ekarri dut, eskarmentua neurririk gabe balioztatzen duten beste horien aurrean.

Batzuek azpimarratu dute “irakaslea jaio egiten dela”; nik, ordea, azpi-marratu beharreko ikusten dut “irakaslea egin egiten dela”; zenbait gauza nork bere kasa lor baditzake ere, beste batzuek adituaren tartekaritza eskatzen dutela (Ur, 1996); eta irakastea ez dela artea bakarrik, zientzia ere badela (Larsen-Freeman, 1987).

Begien bistakoa da, hala ere, esplizituki formazio-programaren bitartez (*formazioa, berriro ere, bere esanahi hertsian hartuz*) lortu nahi den *buru-egitura*, horrek ahalbideratuko baitio irakasleari “bere arte-lana sormenez egitea”, ez dela eskarmentua (formazio hitzaren lehen adiera) aintzat hartzeke eraiki behar; berrikuntza-prozesurik bermatu nahi bada, ezinbestekoa da irakaslearen jokabideak gidatzen dituzten uste eta jarre-ra sakonekoak, jakinaren gainekoak nahiz oharkabekoak, eta bere lana egiteko moduak arakatzea. Hori gabe, ahalegin hori alferrikakoa izango da neurri handiago edo txikiagoan eta, ondorioz, egitasmoaren emaitzak ere erabat zalantzarazkoak izango dira. Termino horren bi adierak, beraz, txanpon baten bi aldean gisa hartu beharko lirateke; eta bata bestea baz-tertu beharrean, errealitate konplexu baten, irakasle izaten ikastearen, barne-barneko bi alderdi gisa ikusi.

Atariko gogoeta hauek amaitzeko, formazioaren ezaugarri oinarritzko bat azpimarratu nahi nuke: duen *etengabekotasuna*.

Horixe eskatzen du hizkuntz ikaskuntzaren zientzien bilakaerak. Ikuspegi horretatik begiratuta, gaur egun *entrenatu*, *formatu* edo *hezi* bereizten dira. Garai batean, era bakar batean entrena zitezkeen irakasleak: irakasten; gaur egun irakasleak *formatu* egin behar dira unean uneko ereduak aukeratu eta egokitu ditzaten (Larsen-Freeman, 1987a). Horrek beti erne egotea eskatzen du; lehen aipatu ditugun buruko egiturak egokitu ahal izateko behar den malgutasun mailara ekarri (Piaget-en erara ulertuz), hizkuntz zientzien ekarpen berriak norbereganatzeko gai izateko. Horrela bakarrik saihestuko dugu pentsamenduaren fosilizazioa (Bergara, 1993) edo adimenaren atrofia.

Gauzak honela ikustea nahasbide izan daiteke, baita frustrazio-bide ere. Zer ez ote genuke egingo gure behar guztiei erantzun azkar eta behin betikoa emango liekeen edabea erosteko! Baina hori, zoritxarrez, ezinezkoa izaki! “Frustrazio” horrekin bizitzen ikasi behar dugu, ondo bideratuz gero, berak lagunduko baitigu sortzaile izaten eta geure lanbidean beti aurrera egiten.

Azkenik, formazioaren beste zera bat ere aipatu beharrean nago: duen *zailtasuna*, alegia.

Zenbaitetan formazio-ikastaro iraunkorretan nik “*mozkor gozoaren*” sindromea eta beste idazle batzuek (Widdowson, 1987: 27) beste era batera deitzen dutena nabaritzen dugu: alde batetik, eguneroko errutinatik ateratzen gara, lagun zaharrekin topo egiten dugu, beste adiskide batzuk ezagutzen ditugu, geure arazoez hitz egiten dugu, lantuk jotzen ditugu, errudunak astintzen ere bai, eta gauza berriak entzuten ditugu... Baina horiek guztiak beren azken muturrera iristen direnean, orduan *transmisio-sindromea* (.3) etortzen da: nola eman ardo eder hura neure ikastetxeko kideei? Eta igorpen hori aski zaila iruditzen zaigu.

Izan ere, aldaketa, berrikuntza, hitz honen esanahirik sanoenean, ekintza korapilatsua baita.

- a Alde batetik, *kontzeptuak dira edo jakinduria argitzaila* (gaztelaniaz “conocimiento declarativo” deritzana; eta “declarative knowledge”, ingelesez): hor sartzen dira printzipioak ulertzea, gure adimenean uzten duten arrastoa, eta printzipio horiek praktikan nola gauzatu jakitea.
- b Bestetik, *prozeduren jakinduria* dago (“conocimiento procedimental”, gaztelaniaz; eta “procedural knowledge”, ingelesez) : gauzak egiten jakitea, hori gabe aurreko jakinduria hilik geratuko baita.
- c Azkenik, *jarrerazko kontua*: egiten badakit eta egin egingo dut; egiten badakit, egin nahiko nuke, baina ezin dut (baliabiderik ez dudalako, adibidez); egiten badakit, baina ez dut egin nahi (neke handia izango litzakeelako, adibidez).

Eta maiz aski ahaztu egiten zaigu. Zilegi bekik duela gutxi kola-fabrika bateko jerentea den nire lagun batek kontatu zidan istorioa kontatzea: behiarena, alegia (.1):

ZER JAN ZUEN BEHIAK?

Kola behi-esneak duen gai batekin egiten da, kaseinarekin. Langintza horrek dituen arazoetako bat da kolak era askotakoak izaten direla, segun eta kaseina hori nondik datorren, zer jandako behiaren errapetik; behiaren habitatak, urtaroak, eguraldiak eta abarrek badute horretan eragina.



GAIK BERBERAK DIRA: GEZURRAI!
GAI DESBERDINEK EMAITZA DESBERDINAK EMANGO DITUZTE...
PROZESU BERAREKIN.

Industriako prozesu hori zertan den kontatu dizuet ikaskuntza-prozesuak oso korapilatsuak direla azpimarratze aldera. Irakasleek, beren nortasunaren, gaitasunaren eta lehenean izandako ikaskuntza-esperientzien kariaz (bazkatutako larrea), nor bere erara landuko dituzte formazio-programetan auzkezten zaizkien proposamenak. “Mozkor gozoaren sindromea” eta denbora luzea igaro ondoren konturatzen zarenean ebaluazioen emaitzek zalantzapean ipintzen dutela formazio-lanaren eragina (Lamb, 1995), geure buruari seriozki galdetu beharko genioke ea benetan egokia zen abian jarri genuen formazio-prozesua.

Zehaztaper horiek guztiak egin ondoren, heldu diezaiogun jada irakasleen formazioaren analisiari helduen euskalduntze-alfabetatzearen ikuspegitik.

**Irakasleen
formazioa
helduen
euskalduntze-
alfabetatzean:
lehena**

Nekez uler daiteke gaur eskuartean dugun lana eta geroaren erronkak hasierakoak gogoan hartu gabe. Egin diezaiogun, beraz, begiratu bat lehenari.

Helduak euskaldundu eta alfabetatzeko herri-mugimendua, hirurogeita hamargarren urteetan gaueskolak sortu eta zabaltzearekin indar handia hartu zuena, erabat aldatu zen laurogeigarren urteen hasieran Euskal Herriko Autonomia Elkargoko erakunde politikoak sortu zirenean. Erakunde horiek 1979ko urriaren 25ean Estatutua onartu zenean jaio ziren, horrek arautuko baitu Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren autogobernu-gaitasuna. Ordukoak dira eta orduantxe zabaldu ziren euskaltegiak: helduek euskara ikasteko zentroak, eta ordukoak dira horiei buruzko arauak.

Eusko Jaurlaritzak 1981eko urriaren 4an sortu zuen HABE (Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakundea) eta 1983ko azaroaren 25ean onartu zuen Eusko Legebiltzarrak.

Historian zeharreko ibilbide motz horretan komeni da, duen garrantziaren kariaz, azaroaren 25eko 29/1983 Legea gogoratzea, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortaraztekoa eta Euskaltegiak arauzkotzekoa.

*Gaueskoletako
irakasleen formazioa*

Gaueskoletako garai haiei begiratzen badiegu, ilusio handia zuen jendetalde bat aurkituko dugu; eguneroko laneko orduak eman ondoren, beren herria eta hizkuntza maite dituztelako, hainbeste urtetan gaitzetsia eta bere kasa utzitako euskara, beren herriko mintzoa, gogo beros irakas-ten arituko dira inolako diru-irabazirik gabe. Era askotako “irakasleak” aurkituko ditugu: burdinlangileak, irakaskuntzako langileak, eliz gizon-emakumeak... hots, gizarteko hainbat sektoretatik etorritako pertsonak dira beren irakasletza ahalik eta ongien eramaten saiatzen direnak. Baina orduan ere eremu horretan hainbat saio egin ziren, apalak eta mugatuak, egia da, “irakasle” haiek hezitzeko. Eta hori ez da ahaztekoa.

*HABEren hasieratik
(1981) Legebiltzarrak
onartu zuen arte
(1983)*

Hainbat saio egin ziren urte haietan, goizetik gauera proiektu handi bat jarri behar izan baitzen abian. Hezkuntza Sailak 1981eko udan hitzaldi

trinko batzuk antolatu zituen, bi edo hiru astean Robert Lado-k eman zituenak. Hantxe aritu ziren HABEk laster zabalduko eta 1994an itxiko zituen euskaltegien eta beste euskaltegi publiko gutxi batzuetan jardun beharko zuten irakasleak. HABEko langileak, bestalde, hiru asteko ikastaro bat egin zuten urte hartako irailean Angostoko barnetegian, Robert Lado-ren taldeko Jim Diaz irakaslearen gidaritzapean. 1982an bai HABEren euskaltegiatarako bai beste euskaltegi publikoetarako lanpostu berrien deialdia egin zelarik, beste bi asteko ikastaro bat antolatu zen HABEren Hondarribiko Barnetegian. Azkenik, esan dezadan formazio iraunkorrerako beste ikastaroren bat edo beste antolatu zela geroago barnetegi horretan bertan.

Azaroaren 25eko
29/1983 HABESEA
Legearen ondorengo
aroa

Aro berri horretako proiektuak arrakasta izan zezan, irakaskuntza arautuan ukatu ezineko jotzen ziren egoera eta baldintza objektibo guztiak ezarri nahi ziren euskaltegien, nahiz eta hauen irakaskuntza Hezkuntza Sistema Orokorretik at egon; eta besteak beste, eta ezin zitekeen bestela izan, langileak prestatu eta gaitzea: irakasleriaren formazioa.

Formazioaren arlo horretan, hala helduak euskaldundu eta alfabetatze kontuetan nola beste edozein arlo profesionaletan, oinarritzko alderdi bat hasierako formazioa da.

Irakasle izateko titulazioa. Alde horretatik, aipatutako HABESEA Legeak dio bere hogeigarren atalean Kultura Sailaren eginkizuna dela euskaltegi publikoetako (erakunde publikoek sortuak) eta pribatu homologatuetako (jabe pertsona fisiko edo legezko pribatuak dituztenak) irakasleei eskatuko zaizkien *titulazioak* arautzea. Horrela, 1984ko ekainaren 8an Kultura Sailak emandako aginduak ezarri zuen bere 11. atalean, euskaltegi pribatu homologatu zein publikoetako irakasleek honako *baldintza* hauek bete behar dituztela: a) Maisu-maistra tituluaren edo diplomaturaren edo unibertsitateko lizentziaturaren jabe izan eta b) EGA (Euskararen Gaitasun Agiria) eduki.

Sarbidea. Hasierako formazioaren kontu hori gehiago zehazteko, euskaltegi pribatu homologatu eta publikoetan irakasle aritzeko esan berri ditudan eskakizun horietaz aparte, *irakaskuntzarako sarrera* ere kontuan hartu beharrekoa da.

Esan beharra dago *euskaltegi publikoetako irakasleen sarrera* bakarrik dagoela horrela arautua. Horretarako, oposizio-azterketa bat gainditu behar da, legeak arautua hau ere, eta honako atal hauek dituen: alde batetik, idazlan bat zerrenda batetik hartutako gai bati buruzkoa; eta, bestetik, ahozko froga bat, izangaiak gai praktikoko bat azalduz egin beharrekoa. Ahozko azterketa hori, aldi berean, izangaiak hizkuntza noraino menderatzen duen jakiteko abagune ona izango da.

Sare publikoko lanpostutarako sarbidea, izangaiak lehen aipatu den era horretan sartutako irakasleak direnean, meritu-lehiaketa izango da. HABEk eman izan ditu horrelako oposiziotara prestatu nahi zutenentzako formazio-ikastaroak, beti erakunde publikoren batek eskatuta. Euskaltegi pribatuetan irakasle sartzeko, berriz, beste bide batzuk daude:

elkarrizketa, norbaiten gomendioa, *curriculum vitae*a, etab. Bestalde, euskalategi-sare batzuek, irakasleen *hasierako heziketa berezia* bermatu nahian, hainbat ikastaro jarri izan dituzte martxan. Euskalategi-sare pribatuak erabateko autogestio-ahalmena izan du hasierako formazio-kontu horretan. Zenbait sarek eskatu izan du bere proiektuak aurrera eramateko Administrazioaren laguntza, baina, egia esan, beti izan da puntuala.

Habilitazio-prozesuak. Irakasle izateko behar diren titulazioen eta hasierako formazioaren gaia bukatzeko, urte hauetan Administrazioak abian jarri dituen bi *homologazio-prozesu* ukitu nahi nituzke orain.

Eskuartean darabilgun egoera bezalakoetan noiz behinka gertatzen da legegilea arauz kanpoko egoerak legeztatu beharrean aurkitzen dela. Horrela, lehen ere aipatua dugun Aginduak (Kultura Sailarena, 1984ko ekainaren 8koa) ezarri zuen HABEren zuzendari nagusiak Erabaki bat kaleratuko zuela 1984ko martxoaren 29an lanean ari eta agindu hartako 11.1.a. ataleko eskakizunak betetzen ez zituzten irakasleen homologazio-frogetarako deialdia eginez.

Agindu hark arautu bezala, HABEren zuzendari nagusiak 1984ko ekainaren 22an hartutako Erabaki bat onartu zen arauz kanpo dauden eta euskalategi pribatu homologatu eta publikoetan helduak euskalduntzen edo alfabetatzen lanean aritu nahi duten irakasleei zegozkien habilitazio-frogetarako deialdia egiten ziena.

Agindu hark agindu bezala, habilitazio-prozesua amaitu zenean, bukatutzat eman zen titulu akademikorik gabe helduak euskaldundu eta alfabetatzen parte hartuak ziren irakasleen normalizazioa. Baina hamar urteren buruan egiaztatu zen bazirela oraindik ere irakasleak, euskaltegiko lanean eskarmentu handia zutenak, baina euskalategi pribatu homologatuetan erabat integratu ezin zirenak, eta, bestalde, bazirela beste batzuk habilitazioa lortu nahi zutenak lanean ari ziren euskalategia homologatua izan zedin. 1984ko abuztuaren 8ko Agindua idarrean jarri zenean lanean ari ziren irakasleen egoera normaltzeko, beste prozesu bat jarri zuen abian 1996ko abuztuaren 8ko Aginduak, Kultura Sailburuarenak, legez ezarritako titulaziorik izan gabe 1994ko urtarrilaren eta 1995eko abenduaren artean euskaltegiren batean lanean aritutako irakasleentzat.

Formazio iraunkorra. Formazio iraunkorraren arloan, lauogeigarren hamarkadan erantzukizuna oso-osorik sareen eskuetan egon zen euskalategi pribatuetan. Honetan ere, hasierako formazioan lege, sare batzuek izan zuten Administrazioaren laguntza. Eta euskalategi publikoei dagokienez, ikastetxe bakoitzak egindako ahaleginez gain, aipatzekoa da Administrazioak eskaini dizkiola sare horri formaziorako ikastaro batzuk gutxi, egia esan. Baina, lauogeita hamargarren hamarkadan garrantzi berezia izaten hasi zen formazioa sektorean. Urte horietan bada kritika franko lan-arlo horrek formazio-zerbitzurik ez duelako. 93an, esaterako, neronek aitatu nuen hori ZUTABE aldizkariaren, gaur HIZPIDE izena duenean, hamargarren urtea zela-ta argitaratu nuen lan monografikoan (Bergara, 1993); ni urte askoan izan nintzen aldizkari horren editatzaile eta horrela erantzun nien ziotenei aldizkari batek ez zuela inoiz izan behar

formazio-zerbitzuko elementurik artikulatuena. Eta HABEk, kritika horiei erantzunez, irakasleak hezi eta eguneratzeko bere egitekoan ahalegin berriz saiaturaz (Azaroaren 25eko 29/1983 Legeko 12. atala) (1), lan-arlo horretan formazio-zerbitzua indartzeko prozesua abian jarri zuen (2).

Lan-batzordea. Azpimarratzekoa da, bestalde, nolako eragina izan duen sareetako ordezkariak eta HABE formazioaren gaiaren inguruan biltzeko *lan-batzordea* izenekoak.

HABEren eta euskaltegi-sare guztien arteko hitzarmen-markoetan jasotakoari jarraiki, euskaltegietako ordezkariak osatutako lan-batzordea eratu zen 1996ko uztailan, honako bi egiteko nagusi hauek burutzeko:

- 1 Euskara-irakasleen prestakuntzan orain arte antolatu diren ikastaroetako egitasmoak *ebaluatzea*.
- 2 Irakasleen funtsezko zein etengabeko eguneratzea ahalbideratzeko, oinarritzko arlo eta edukiak zein baliabideak *proposatzea*.

Esan bezala, euskaltegi-sare guztietako ordezkariak deitu zituen Jokin Azkue HABEren zuzendari nagusiak batzordean parte hartzera. Honako hauek, zehatz-mehatz: 1) Udal-euskaltegiak; 2) Atxikigabeak: Zornotzako Barnetegia, Ulialde, Labayru Ikastegia, Deustuko Unibertsitatea - Euskal Irakaslegoa, Maizpide, Gotzon Garitaonandia, Elhuyar, Billabonako Euskaltegia, Jose Antonio Agirre eta Leizaur; 3) Bertan; 4) AEK, eta 5) IKA.

Eta hauek dira, berriz, batzordearen lanetan parte hartu zutenak: 1) Udal-euskaltegiak: Amaia Goiri eta Jokin Nazabal; 2) Atxikigabeak: Rafa Ugalde (Zornotzako Barnetegia) Lourdes Amundarain/Marian Bidegain (Maizpide), Nerea Uriarte (Ulialde), Asier Astigarraga (Labayru Ikastegia), Mertxe Luzuriaga (Deustuko Unibertsitatea - Euskal Irakaslegoa); 3) Bertan: Joseba Ezeiza; 4) AEK: Xabi Bosch eta Joseba Irazabal; 5) IKA: Mailu Lasarte, eta 6) HABE: Juxto Egaña eta Joanba Bergara

Harrezkero, eta lan-giro ezin hobean, lanean aritu zen batzordea eginkizun horien harian, buru-belarri aritu ere. Bederatzi bilera egin zituen guztira, zenbaitetan bi taldetan lan eginez.

Arestian azaldutako helburuak eskuratu nahian, eta heziketa-egitasmoak errealitatera egokitze asmoz, *diagnosi-tresna* zenbait sortzeari ekin zion berehala; eta bost inkesta sortu zituen, guztira. *Lehenengoa* euskaltegi guztietako irakasleei luzatu zitzaion. *Gainerantzekoak*, aldiz, euskaltegietako arduradunei.

Lehenengoa, besteak beste, honako alderdiok mugatzea zuen xede: 1) irakasle, didaktika-arduradun eta zuzendarien prestakuntza (landutako alorrak, erabilitako moldeak eta prestakuntzaren iraupena); 2) talde horiek sentituiriko beharrak; 3) etengabeko prestakuntzarako zailtasunak; eta 4) hobetsitako baliabideak...

Gainerantzeko inkestek, aldiz, honako hauek: 1) euskaltegi zein sareen lana irakaslegai/esperientzia gabeko irakasle berrien eta irakasle arituen

prestakuntzan (landutako alorrak, erabilitako molde eta baliabideak, prestakuntzara emaniko denbora); 2) prestakuntza-saio horietan sumatutako hutsuneak; 3) sareek/euskaltegiek sentituriako beharrak; 4) hutsunak berdintzeko landu beharreko alorrak; 5) hobetsitako baliabideak; 6) heziketa-programa aurrera eramateko zailtasunak...

Gero, inkestak egin ostean, *datuen prozesaketa* informatikoaren garaia iritsi zen. Eta ez zen, ez, makala izan arlo horretan batzordeak egin behar izan zuena. Nekeza baitzen egitekoa. Baina burutu ere egin zuen behar hori ia; item zenbaiten prozesaketa gerorako utzi baitzuen. *Datuen irakurketa* izan zuen gero zeregin nagusi; eta horretan aritu zen batzordea eginahalean.

Azkenik, inkesten emaitzak aztertu ondoren, *heziketa-planaren diseinurako proposamenak* egin zituzten euskaltegi-sareek eta 1997ko urria-azaroan aztertu zituen HABEk proposamen horiek sareetako arduradunekin egindako bileretan.

Gero, azaroaren 17an, aipatu bileretan agindutako dokumentazioa helarazi zitzaizen sareei, ondo azter zezaten; bi dokumentu, guztira.

Lehenengo dokumentua zela eta, *Euskaltegiaren heziketa-plana* izeneko, zera adierazi zien HABEk:

Euskaltegiak eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea hobetuko badugu, euskaltegiaren ohiko eta eguneroko bizitzan txertatu behar dugu heziketa; eta hobetze-bideak jorratzera zuzendu geure ahalegin guztiak. Bileran etsenplu gisa banatu genuen dokumentuak, hain zuzen, hori adierazi nahi du.

Lanabes hori moldatzeko, aintzat hartu dira, bileretan adierazi bezala, lan-batzordeak sortutako inkestak; eta tresna hori erabiltzerakoan lan-batzordeak zedarritutako hamar printzipio hartu behar dira kontuan: sozializazioarena, heterogenotasunarena, taldekotasunarena, egokitzapenarena, funtzionaltasunarena, osotasunarena, integrazioarena, malgutasunarena, aintzatasunarena eta osagarritasunarena.

Bigarren dokumentua, *Heziketa-plan integrala* zeritzana, aurkezteko, berriz, honakoa:

Goian aipatu heziketa-planaren osagaietako bat garatu du HABEk bigarren dokumentuan, ekitaldi akademikoena, heziketa-plan integrala, osagai, arlo, molde eta erantzuleei dagokienez, konplexuagoa dela ahaztu gabe.

Euskaltegiaren zerbitzua hobetzea helburu izan behar duen osagai hau tentu handiz taxutu beharko dugu datozen urteotan; izan ere, berrikuntza kurrikularren erronkari aurre egingo badiogu, heziketaren bidez izango baita.

Bi dokumentu horiekin batera bidalitako eskutitzean, eta HABEren egitasmoak sareen beharretara doitzeko lagungarri gertatuko zelakoan, bigarren eranskina, behar bezala beteta, HABEri itzultzeko eskatu zitzaizen. Eta euskaltegiek bidalitako erantzunak aintzat hartuta taxutu zuen HABEk prestakuntza-egitasmoa.

Sareen onespena zuen egitasmoa gauzatzen hastea besterik ez zen falta: plan integrala abian jartzea, alegia. Sareak pronto zeuden, itxaropentsu; erronka berri honen aurrean, kementsu. Eta horretan ari gara 1998an, azken urteotan hasitako bidetik.

Graduondoko ikastaroak. Bestalde, ez da ahaztekoa 90 urteetako lorpen historikoa: arlo honetako langileentzat antolatu ziren bi graduondoko programa. Bata, *Bigarren Hizkuntzen Irakaskuntzarako Irakasleen Formazioa: Euskara* (*Graduondoko ikasketa-egitaraua: 1992-1997*), Euskal Herriko Unibertsitateak (Hizkuntz Pedagogia eta Metodoen Sailak) HABEren babespean antolatua; eta bestea, *Euskalduntze Alfabetatzerako Diploma*, Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailak antolatua, Euskal Kulturaren Batzarrak sustatuta. Udako Ikastaro Europarretan izango duzue horien berri zabala.

UEUko glotodidaktika-ikastaroak Ez da ahaztekoa Udako Euskal Unibertsitatearen ahalegina ere, bere glotodidaktikako ikastaroekin arlo honetan arduratuta daudenen indarrak jarri ditu gai horiek ikasten eta irakasten.

Hala berean, Ikastaro Europarren antolatzaileek lehenengo aldiz prestatu dute egun hauetan parte hartzaile gaituen *Hizkuntza Minorizatuuen Irakaskuntza: Berrikuntza Kurrikularra* ikastaroa, HABEren babespean. Bat datoz Unibertsitatea helduen euskalduntze-alfabetatzearen arloan inplikatzeko saio horiek nik 1993an eskatutakoarekin (Bergara, 1993: 9). Nahiago nuke hasitako mugimendu hori geratuko ez balitz; izan ere, arlo honetako irakasleak hezitzeko ahalegin horretan denak dira beharrezko.

Elkarhezi. Azkenik, Fundación Tandem-en *Elkarhezi* proiektua ere ez nuke ahaztu nahi, hori ere lan-arlo honetan formazio-zerbitzua eskaintzen saiatu baita, ez nolanahi ere. Eta barka inor ahaztu baldin badut.

Dinamika hori guztia *heldutasunaren* seinale da eta baita inkomunikazioaren kontrako sendagai ere. Horren haritik, funtsezkoa iritzi genion, lan-batzordean, geure esparruan lankidetzaz sustatu eta harreman egokiak garatzeari; ez baita nolanahikoa horrek garapen profesionalerako duen garrantzia. Beldur naiz ez ote garen bizi maiz aski gaitz zenbaitek jota: bakardadearenak; harreman endogenoenak (harremanak euskaltegiekin/sarekoekin soil-soilik, kasu); eta harreman exogenoenak, agian, zenbait kasutan (harremanak “kanpokoekin” gehienbat; ez “etxeakoekin”).

Usu erabiltzen da gurean eta hizkuntzen irakaskuntzaren munduan *autonomia* hitza, bakardadearekin, independentziarekin eta harreman endogenoekin zerikusirik ez duena. Kontzeptua erantzukizunarekin dago lotua; eta azken hau lankidetzarekin. Beldur naiz ez ote garen maiz ibili nor bere aldetik, lan eskerga eginez, denok bat hartuta lan egin beharrean (Esaterako, fonotekak/bideotekak eratu edota simulazioak grabatu nahian.). Desegokia da oso jokabide hori, nire ustez; eta alde askotatik, gainera: ez da ekonomikoa; nekez zabal daitezke horrela kalitatearen bideak; adimenaren bilakaerarako ez da pizgarri; eta ezin da horrela arindu eguneroko lanaren zama.

Arriskutsuak dira harreman endogenoak, bestalde. Eta ez maila biologikoan soilik; baita adimenaren mailan eta maila sozialean ere, arestian

**Irakasleen
formazioa
helduen
euskalduntze eta
alfabetatzean:
oraina**

Xede-taldea

.2:

emaniko arrazoiengatik. Hona aldatu nahi dut sare bateko ordezkariak auzi honen harian lan-batzordean esan zuena: "Mintegiak zein ikastaroak sarez kanpoko jendearekin egitea oso ona izan da guretzat, gure saretik irten garelako." Bat nator, nola ez, erabat baieztapen horren gibelean dagoenarekin; eta sareok badugu kontu honetan zer hobetu.

HABEk gaur egun dituen formazio-zerbitzuez eta burutzen ari den heziketa-ekitaldiez aritu aurretik, hartzaileen aurrean jarri nahi zintuzketet laburkiro. Euskaltegietan ari diren eta HABEren Erregistroan dauden irakasleak 1.782 dira (1997/98 ikastaroko datuak), pertsona fisikoak gutxiago badira ere, irakasle batzuk euskaltegi bat baino gehiagotan ari baitira.

Irakasleak lurraldeka			Irakasleak eta eskolorduak sareka				
Lurraldea	Irakasleak	Ehunekoak	Sarea	Irakasleak	%	Eskolorduak	%
Araba	290	16,3	AEK	708	39,7	3.626.105	29,6
Bizkaia	947	53,1	BERTAN	341	19,1	2.984.028	24,4
Gipuzkoa	545	30,6	IKA	118	6,6	862.462	7
EAE	1.782	-	UE	428	24	3.483.262	28,8
			Besterik	187	10,5	1.288.384	10,5
			EAE	1.782	-	12.244.239	-

Irakasleak sareka eta lurraldeka

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Irakasleak	%	Irakasleak	%	Irakasleak	%
AEK	109	37,6	396	41,8	203	37,2
BERTAN	48	16,6	161	17	132	24,2
IKA	118	40,7	-	-	-	-
UE	15	5,2	243	25,7	170	31,2
Besterik	-	-	147	15,5	40	7,3

Irakasleen ikasketa-maila

	Irakasleak	%
Agiririk ez	13	0,8
Lizentziadunak	752	45,1
Diplomadunak	180	10,8
Magisteritza	355	21,3
Gaituak	246	14,7
UBI	5	-
Besterik	4	-
Gaitze-bidean	111	6
	1.666*	

N = 1.666

Euskaltegiak irakasle-kopuruaren arabera

Irakasleak	Euskaltegiak %etan
01-05	22,9
06-10	37,1
11-15	15,2
16-20	11
21-25	4,1
26-30	3,4
31-	5,5

Bost sarbiderik ohikoenak

	Oposizio- -azterketa	Ikastaroa	Ikastaro eta elkarriketa	C.V.	Elkarriketa
Irakasleak	238	250	130	157	254
%	16,3	17,2	8,9	10,8	17,4

Azkenik, eskarmentuan, *grosso modo*, honela daude irakasleak: %38k 1-5 urtekoa dute; %31k 5-10 urtekoa; %30k hamar urte baino gehiagokoa.

Eta horiexek ditugu, gaingiroki, formazioaren hartzaileak. Oinarrizko heziketaz era askotakoak; hasierako formazio bereziaz ere askotarikoak. Kontratuak ere ez dituzte denek berdinak (%40 du kontratu finkoa); irakaskuntzako dedikazio-mailak ez dira hein berekoak (%56,1ek du osoa); bestalde, lanean ari diren ikastetxeak ere ez dira berdinak ez neurritz, ez baliabidez, ez ordutegiz.

Hartzaileak horiek ditugularik, bi eratako formazio-zerbitzuak aipatuko ditut izatez desberdinak baina elkarren osagarri: HABEk azken urteotan eskaintzen dituen formaziorako ekintza akademikoak, alde batetik; eta argitalpenak, bestetik.

*Formaziorako ekintza
akademikoak*

Era honetan sailka daitezke HABEk eskaintzen dituen formaziorako ekintzak:

- 1 *Euskaltegieta irakasleentzako ikastaro irekiak.* Ekintza hauek, irakasle guztientzako eskaintzen direnak, ikasturtearen hasieran edo bukaeran izaten dira, garai egokiak baitira horiek irakasle askorentzat. Euskal herrialdeetako hiru hiriburuetan egiten dira eta hamabost ordukoak izaten dira, eguneko hiru orduko kontuan. Muga bakarra, lehenik ikastaroa egina izateaz aparte, zenbatekoak jartzen du, ikastaroko hogeita bostentzat izan ohi baitira. Matrikulazio-epea bukatutakoan, eta lehen esandako arazoarengatik baten bat bazter utzia izan bada, bi irizpide izaten dira gidari: unibertsaltasunarena eta proportzionaltasunarena. Horrela, matrikulak bidali dituen ikastetxe orok du parte hartzeko eskubidea; eta, horren ondoren, oraindik ere lekurik egonez gero, ikastetxe bakoitzak egindako matrikulen arabera banatzen dira ikaslekuak. Ikus dezagun, gaiaz jabe zaitezten, azken lau urteetako ikastaroen laburpen bat:

.3:

Urteak	1995	1996	1997	1998
Ikastaroak	3	4	6	6

- 2 *Xede-talde jakin batzuentzako ikastaroak.* Ikastaro hauek arlo jakinen batean ari direnentzako edo eginkizun bereziren bat eskuartean izango dutenentzako izaten dira; adibidez, curriculum berria ikastegi batzuetan ezarri, edo ikastetxeko plangintza eta memoriak arau baten neurrietara ekarri edo materialgintza didaktikoan aritu edo arlo bereziren batean lanean jarri nahi direnentzako.

Esaterako, abian jarri duen berrikuntza kurrikularraren bidean urratsak egin asmoz, eta lantalde eragileak prestatzeko xedez, euskaltegi-sare guztietako hogeita hamar lagunentzako hamar ikastaro eratu ditu HABEk ekaina-abendua bitartean Erakundearen Donostiako egoitza nagusian.

Besteak beste, honako hauek izango dira lantaldeen eginkizunak: prestatuntza-moduluekin esperimentatu; zer ematen duten ikusi; sareetako euskaltegi-tara iristeko zer egokitu behar den erabaki; eta zein ikastaro eskaini berriro gomendatu.

Hamar ikastaro horietan ere lehen aipatutako printzipioak oso aintzat hartu dira. Lehenengoaren haritik saiatu gara horietan bost euskaltegi-sareek partaideak izan ditzaten; bigarrenaren arabera, sare bakoitzean emandako ikasle/orduen neurrian banatu dira ikaslekuak.

Ikastaro horietan jorratuko diren gaiei dagokienez, batzuetan didaktika-ko orokorrak izango dira: programagintza, ikastunitatearen diseinua, atazetan oinarritutako metodologiaren ikaskuntza-arrok edo zikloak, ikasestrategiak, irakaslearen diskurtsoa ikasgelan (ikaskuntza-arrok edota ariketak egituratzeko diskurtsoa eta ez-hitzezkoa) ariketen azterketa, autoikaskuntzaren antolamendua; beste batzuetan arlo jakin batzuetako gaiei helduko zaie: gramatikaren irakaskuntza, idazkiaren didaktika, etab. Bi aldeak, bistakoa da, oso elkarrekin lotuta daude. Ikus dezagun, gaiaz jabe zaitezten, azken lau urteotako ikastaroen laburpen bat.

.4:

Urteak	1995	1996	1997	1998
Ikastaroak	13	25	8	14

3 *Bideohitzaldiak*. Estreinako aldiz, aurreko atalean aipatu ikastaroetara joaterik izango ez duten irakasleentzako, berorietan jorratuko diren gaien aurkezpena egiteko xedez, ordu beteko bideohitzaldi batzuk antolatu ditu HABEk ikastaroak emango dituzten adituen eskutik. Eusko Jaurlaritzak Bilbo, Gasteiz eta Donostian horretarako duen azpiegituraz baliatuko da HABE ekitaldi horiek burutzeko.

4 *Langaien aurkezpena*. Nik aurkezpen horiei aurkezpen hezitzaileak deitzen diet, merkataritzako eta prentsa aurrekoetatik bereizteko. Hiru bat ordu irauten dute. Helburua materialetara hurbiltzea izan ohi da: materialen egitura, helburuak, edukiak eta ekintzak, erabiltzeko moduak eta azpian duten teoria ezagutzeko. Alde horretatik, hasiak gara jada *Barrene* eta *Barrenet* bildumako lehen unitate pilotoak euskaltegi batzuetan aurkezten.

.5:

Urteak	1995	1996	1997	1998
Aurkezpenak	3	1	1	3

5 *Norberaren neurriko prestakuntza*. Denborarik eza izaten da euskaltegiek irakasleen heziketa-prozesuak beren langilerik gehienak parte hartzeko moduan prestatzeko izaten duten eragozpen handienetako bat. Eta are zailagoa da hori irakasleen ordutegiak edo dedikazio-mailak berdinak ez direnean. Horren aurrean, egia da, amore ematea izan daiteke ikastetxearen jarretetako bat. Hori, ordea, Covey-ren istorioko basomutilaren jarrera berbera dateke. Hona ipuina:

Egun batean basoan zabiltzala gizon bat ikusi duzu zerra batekin eginahalean zuhaitz bat botatzen ari dena:

- Zertan ari zara? galdetu diozu.
- Ez al duzu ikusten? besteak zuhaitz hau botatzen.
- Nekatuta zaude diozu zuk. Zenbat denbora da lanean ari zarela?
- Bost bat ordu bai, eta leher eginda nago. Hau ez da txantxa gero.
- Hobe zenuke atsedenalditxo bat hartu eta zerra zorroztu. Horrek lana erraztu egingo lizuke.
- Ez daukat zerra zorrozteko astirik dio besteak. Nahikoa lan badut zuhaitza mozten.

Egin beharrekoa da egoera irauli, “zerra zorrozteko” astia emango duen egitura sortu. Eta horixe da, hain zuzen ere, ikastetxe batzuek egiten dutena: beren heziketa-proiektuan hainbat bidetatik eskaintzen diren formazio-aukeretan irakasleak inplikatu parte har dezaten eta, gainera, beren euskaltegian edo beste batzuekin batera arlo jakinen bat landu horretan ahalik eta irakasle gehien inplikatzu. Bide horretatik jo duten euskaltegiek, aste beteko ikastaroren bat prestatuz edota hainbat hilabetetako mintegiren bat antolatuz, HABEko langileen laguntza izan dute beren asmo horiek burutzeko. Eta laguntza hori eman ezin denean, Prestakuntza Atalak aholkuak eman ditu ikastetxeek beren proiektuak burutu ditzaten (zerbitzu horretaz gero jardungo dut).

Azkenik, azpimarratu nahi nuke, zenbaitetan, euskaltegi ez diren beste erakundeek ere laguntza eskatu izan dutela eta lagundu egin zaiela.

.6:

Urteak	1995	1996	1997	1998
Saioak	4	5	10	7

6 *Jardunaldiak eta mahainguruak*. Behar-beharrezko dugu helduen euskalduntze-alfabetatzearen esparruan euskaltegi-sare guztientzako topagune edo forum egokiak sortzea, geurean eta geurean ez bestean egin, egiten edo egin asmo dena azaltzeko, elkarren berri izateko. Eta bide hori behar beste jorratzea, erronka.

Jardunaldietara bildu beharko genituzke, besteak beste, 1) Administrazioaren eta euskaltegi-sareen egitasmoen azalpena; 2) egitasmoen lorpen-mailaren balorazioa; 3) sektorean ekoizturiko materialen aurkezpeneak (langaiak direla, irakasleek buruturiko jardunaren ikerketa-lanak direla); 4) metodologiaren esparruko esperientziak (benetako materialen

erabilera, kasu); 5) eraketaren alorreko esperientziak (autoikaskuntza-zerbitzuak, kasu); 6) ikasleek lorturiko emaitzei buruzko azterketak; 7) erakunde ezberdinen euskalduntzeko kurrikuluak (HABE, IRALE, Hizkuntza Eskolak...); 8) osagai kulturala ikasprozesuan txertatzeko moduak; 9) ikasprozesuaren mailaketa; 10) taldekatze-sistemak, etab.

Azkenaldi honetan esparru horretan lau saio bideratu ditugu bi 1995ean eta beste biak 1998an.

7 *Graduondoko ikastaroak*. Formazio-ekintzen atal hau ez nuke bukatu nahi *Bigarren Hizkuntzen Irakaskuntzarako Irakasleen Formazioa: Euskara (Graduondoko ikasketa-egitaraua: 1992-1997)* aipatu gabe. Euskal Herriko Unibertsitateak, Hizkuntz Pedagogioa eta Metodoen Sailak antolatu zuen HABEren babespean (Ikastaro Europar honen joanean izango duzue horri buruzko komunikazio bat.) Berrogeita lau ikastaro eman dira bost urteko epe horretan; horietarik hogeita bost mintegi gisa ikasturtean zehar. Programa horretako 2.740 heziketa-orduetatik 1.280 HABEko teknikariek eman dituzte; hortxe ageri da Administrazioak programa horretan izan duen partaidetza.

Aholkularitza eta
adituen
kontratatziorako
laguntza

Lehen, *Norberaren neurriko prestakuntza* atalean esan dudan bezala, ezinezkoa da ikastetxeek beti HABEko langileen laguntza izatea ikastaro edo mintegiren bat martxan jartzea erabakitzen duten aldi bakoitzean. Horrelakoetan, ikastegiek Prestakuntza Atalera jo dezakete laguntza eske. Atalak informazio-zerbitzu bat badu formazio-arlo eta berorietako adituei buruzkoa; era berean, ikastetxeak edo sare bateko arduradunak eskatuz gero, bitartekari izaten da gure atala adituaren eta zerbitzu eskatzailearen artean eta jeneralean ikastetxeak adituaren zerbitzuak kontratatu egiten ditu.

Aldeak alde, testuinguru horretan kokatuko nuke informatika-ikastaroen aurtengo eskaintza ere: langileen prestaketarako diru-laguntzak kudeatzen dituen HOBETUZ fundazioaren laguntzapean CEIMPRO enpresak egin duena, alegia. Taldeak osatzeko eskakizunak direla euskaltegi askok izan ditzakeen zailtasunak aintzat hartuta, koordinazio-lana ari da egiten HABE, CEIMPROk eta euskaltegiek egitasmoa aurrera atera dezaten. Ikus dezagun eskaintzaren banaketa. Windows + Access, bi asteak: 12 (%57,1); Access, aste betekoa: 1 (%4,8); Word, aste betekoa: 8 (%38,1)

Argitalpenak

Prestakuntzarako argitalpenei dagokienez, hasiera-hasieratik sortu zituen HABEk prestakuntzarako aldizkari eta liburu-bildumak, helduen euskara-irakasleei formaziorako lantresnak eskaintzeko. Edozein lanbide, nik 93an adierazi bezala (Bergara, 1993), biziago ala motelago garatzen doan *idei corpus* edota *iritzi-multzo* baten gainean oinarritzen delako. Aipaturiko argitalpenek horixe zuten, hain zuzen, helburu nagusi: *idei corpus* eta *iritzi-multzo*en garapenerako lanabesak eskaintzea geure lanbidea ondo oinarritzeko.

Lehenengo argitalpena aldizkari bat izan zen: *Hizpide* lauhilabetekaria. 1983an HABEk sortutako aldizkari honek ama-hizkuntza eta bigarren

hizkuntzen irakaskuntzarekin zerikusirik duten zientzi arloak ditu berezko esparru; eta teoriak, teknika eta ikerketak ezagutaraztea helburu nagusi. Teoria aplikatuaren eta praktikaren arteko oreka lortu nahi du, zientzia eta klaseko mundua uztartzeko zubi izan, aplikatua baita argitalpenaren orientabidea. Harrezkero 41 ale kaleratu ditu; eta bi monografia. Eta, batik bat, helduen euskara-irakasleei dago zuzendua.

Bigarrena, berriz, liburu-bilduma, *Itzulpen Saila* izenekoa. 1984an sortu zuen HABEk. Harrezkero 39 ale kaleratu ditu. Han-hemenka beste hizkuntzatan argitaratutako liburu interesgarriak euskaratu ditugu bilduman, hizkuntzaren irakaskuntzarekin lotuak ia guztiak.

Ezin aipatu gabe utzi, aurrekoen aldean beste eitekoa eta "ume txiki" bat bada ere, *Berrikaria* buletina. Euskara irakasten eta sustatzen ari garenon *Berrikaria* 1995eko maiatzean argitaratu zuen HABEk 0 zenbakia eta 1998ko maiatzean 11.a. Maiztasun jakinik gabea eta doanekoa. Eta honako helburuok lortu nahi dituen: 1) Euskaltegietan prestakuntza-alorrean egin diren eta egin gogo diren prestakuntza-ekitaldien berri ematea; 2) Iragarki-taula izatea irakasleen arteko harremanak bideratu eta sendotzeko; 3) HABEren prestakuntza-zerbitzuak iragartzea: eraturiko eta eratuko diren ikastaro, mintegi, hitzaldi eta langaien aurkezpenak; HABEren argitalpenak... 4) Prestakuntzarako irakurgaiak gomendatzea; 5) Eta, oro har, hezkuntza-erakundeek prestakuntzaren esparruan egiten dituzten eskaintza interesgarrien berri ematea.

Azkenik, bere tipian hain miretsia den HABE Liburutegia aipatu nahi nuke. Liburutegiaren ekoizpen dokumentalaren artean *Eskuratu berrien albisteak* merezi du aipamen berezia. Bi hilabetero liburutegian jasotzen diren dokumentuen berri ematea du helburu. Zerrendak gaika antolatuta daude, kontsultak erraztearren. Interesa duen erakunde, ikastetxe edo norbanakoak jaso dezake; eskatu besterik ez du horretarako. Hori bai, informazioa eta dokumentazioa trukatzeko bideak hobestearren truke.

Langai kurrikularrak

Bukatzeko, beste argitalpen-mota berezi bat aitatuko dut; *langai kurrikularrak* deituko diet; Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluaren ikuspegitik eratutako unitate didaktikoak dira.

Kontuan hartzekoa da irakaskuntzan ezer berri nahi bada, besteak beste, berrikuntza horiek ikasgelako lanerako proposamenetan mamitu beharko dutela irakasleengan berrikuntzako asmo horiek itsatsiko baldin badira; eta curriculum berria ezarri ahal izateko behar diren irakasleen prestakuntza-programei laguntzeko, Erakunde honek langai kurrikularrak sortzeko proiektu bat jarri du abian. Eta "atxikimendu"-sentimenduari eusteko, ezinbestekoa baita irakaskuntzan aldaketarik burutuko baldin bada, eta kontuan hartuz erabiltzaileak, azken buruan, irakasleak izango direla, nahi izan dugu berauek izan daitezela, HABEren zuzendaritzapean, material horien diseinatzaileak. Esperientzia horri buruz informazio zabala jasoko duzue Ikastaro Europar honetan Begoña Martínez Monasterio nire lankidearen ponentzian.

Oinarritzkoa deritzot curriculuma berritzeko proiektuari kudeaketaren ikuspegitik (Ronald White-k aztertuko du gai hori) begiratzeari. Gure lanbidean usu aipatzen da azterketa-sistemak metodologian duen eragina; begien bistakoa da sistema horrek baldintzatu egingo duela metodologia eta sustatu nahi den berrikuntza metodologikoarekin bat ez datorren azterketa-sistema batek eragoz dezakeela horrelako berrikuntzarik erdiestea. Gauza bera esan daiteke materialez ere, nirekiko. Lehengo material zaharrak erabiltzea oztopo izan daiteke berrikuntza-proiektuan. Eta ez dira ahaztekoak irakasleen profila eta lan-egoera eta arlo honetako gure merkatuaren urritasuna. Hori guztia aintzat hartzen ez bada, gauzak berritzeko ametsa lokamuts bihur daiteke.


Gai hau mahaigaineratu dut formazioaren gaian ikuspegi bateratu baten beharra azpimarratzeko, lehen ere, neure ponentziaren hasieran formazio terminoa zehazten aritu naizenean, esan dudana legez.

**Irakasleen
formazioa
helduen
euskalduntze-
alfabetatzean:
geroa**


Ponentzia honen hasieran formazioaren ezaugarrietako bat aipatu dugu: etengabekotasuna. Lan-arlo horri, batez ere sarbideei egin diegun analisiaren haritik, nire iritziz, indar handiagoa eman beharko litzaioke formazio etengabeari, curriculumaren berrikuntzak atarramendu ona izan dezan nahi badugu behinik behin.

Curriculuma berritzeko proposamenak, eskeman islatu den bezala, elkarrekin lotura estua duten printzipio orokor batzuetan du oinarria. Printzipio horiek, irakasleei beren aribide pedagogikoa kontrastatu eta hobetu eta horrela beren gaitasunak oro ustiatzeko balioko badiete, aurretik eraginik handiena izatearen aldetik ondo definituta egon beharko dute.

.7:



Printzipioen artean hauexek izango lirateke azpimarratzekoak: lehenik, ikaskuntzako oinarri soziokulturalak; bigarrenik, ikaskuntzako oinarri psikolinguistikoak; eta, hirugarrenik, ikaskuntzako oinarri linguistikoak.



Eragingarri izango baldin bada, curriculuma berritzeko proposamenak bere baitan beharko luke izan (.7 eta .8), alde batetik, osagai kulturala (atzoko eta gaurko gaiak eta kultur produktuak ikaskuntzaren ibilbide osoan erabiltzea); bestetik, corpus pedagogikoa eratu eta prozesuan zehar sekuentziatu; eta, azkenik, ikaskuntza-prozesu osoa diseinatu.

Begien bistakoa da hiru alderdi horiek lotura estua dutela elkarrekin. Osagai kulturala, esate baterako, ezin da corpus pedagogikotik at diseinatu. Corpusaren diseinua, berriz, ez da alderdi piskolinguistikoa kontuan hartzeke egitekoa (adib.azalpen-testuen corpora benetako testuek osatu beharko lukete, erraz ulertu eta gogoan hartzeko moduko testu benetakoek). Eta ezin abia daiteke ikaskuntza-prozesuaren diseinurik aurretik corpus pedagogikoa eratu ez bada.

Bi arlo horiek, printzipioena zein diseinuarena, azken hau batik bat, nire iritziz, arreta bereziz aintzat hartuak izan behar lukete datozen urteetan. Horrela bakarrik eduki ahal izango dituzte ikastetxeek beren egitasmo pedagogikoak azken burura eramateko tresnarik onenak (.7 eskemako hirugarren maila).

Eta, orain, etorkizunean zain dauzkagun erronka zailak begietan, nire ustez ahalegin bereziz zein eremutan saiatu beharko genukeen zehaztuz bukatu nahi nuke ponentzia hau.

Materialen esparrua

Lehenbizi materialen esparrua azpimarratuko nuke; hauek izango lituzkete, nire iritziz, baliabide hauen oinarritzko eginkizunak: lehenbizi, berrikuntza-proposamena sistematu eta azaldu; bigarren, ereduz hornitu; eta, hirugarren, formazio-ikastaroetan egin beharreko lana gidatu.

Material kurrikularren esparrua Arlo horretan lehenik material kurrikularrak azpimarratuko nituzke non honako hauek sartu beharko liriatekeen:

a Oinarritzko dokumentua edo egitasmoaren dokumentua.

b Eta egitasmoaren dokumentuko atalak garatzen dituzten beste dokumentuak, adib. diseinu-atalean: corpus pedagogikoa eta beronen sekuentziazioa; prozesu didaktikoaren alderdi orokorrak eta bereziak (.7 eta .8).

Langaien esparrua. Bigarrenik, unitate didaktikoen arloa aipatuko nuke. Garrantzi handia du datozen urteetan berrikuntzaren ildoari jarraituko dion materialgintzan pauso berriak egin eta sektoreari eskaintzeak.

Bibliografia espezialdua. Bestalde, dokumentazioaren kapitulu honetan, gero eta eskari handiagoa duen eta ikastetxeen formazio-proiektuetan euskarritarako izan dezakeen garrantziarengatik kontu handiz antolatu beharko den zerbitzua bibliografia espezialduena da. Bibliografia hori hainbat eremuren inguruan bildu behar da; ikaskuntza-prozesuen diseinua (edukien aukera eta antolakuntza, ariketen hautaketa eta eraketa ikaskuntza-aro edo ziklotan, etab.), prozeduren eremua (ahozko eta idatzizko hizkuntzaren irakaskuntza), ezagutzen eremua (gramatikaren irakaskuntza, lexikoaren irakaskuntza, etab.), metodoen eremua, autoikaskuntzarena, ebaluazioarena, etab.

Bestalde, formaziorako ikastaroen atala azpimarratuko nuke, oso funtsezko eta kontuan hartu beharreko alderdia baita berrikuntzaren bideak taxuz ibili nahi baditugu.

Material kurrikularren aurkezpena. Lehenbizi HABEk egitasmoaren dokumentua aurkeztu eta azaldu beharko du: proiektuaren zergatia, dokumentuaren oinarriak, beronen egitura, etab. Eta gero polikiago ekin, ikastaro monografikotan eta, erreferentziazko marko horren xehetasunei: adib. helburu eta edukien arabeko sailkapena mailaka; metodologiaren ikuspegitik mailaka sailkatzea; mailakako ebaluazioa; prozesua lau mailatan zergatik egituratu den, etab. Eta beste horrenbeste esan beharko litzateke egitasmoaren dokumentuko atalak garatzeko atera beharko liratekeen beste dokumentu kurrikularrei buruz ere, adib. diseinuaren eremuko alderdiak: corpus pedagogikoa eta beronen sekuentziazioa; prozesu didaktikoaren alderdi orokor eta bereziak (.7 eta .8).

Langaien aurkezpena. Datozen hilabeteotan, gainera, are gehiago saiatu beharko du HABEk unitate didaktiko berriak taxuz aurkezteko, horien egitura eta erabiltzeko moduez gain oinarri dituzten printzipioak eta berorien diseinua azalduz, lehen esan dudana legez. Eta hori guztia analisi xeheago baten atari besterik ez da, alderdi jakin batzuk gehiago aztertu beharko bailirateke, formaziorako ikastaro berezitan, berrikuntza kurrikularreko printzipioen argitan (ikus diseinuaren eremua: .7 eta .8).

Ikastaro monografikoak. Lehen ere aipatu ditudan ikastaro monografikoak dira datozen urteetan formaziorako ikastaroetako lanaren ezaugarri bereziak. Hortxe landu beharko dira era egokian .7 eta .8 grafikoetan azaldu diren diseinu-eremuak.

Ikasgelako lana ikertzeko mintegiak. Geroan inolako zalantzarik gabe indartu beharreko arlo bat ikasgelako lana ikertzeko mintegiena da, ikastaro/mintegi-programa integraturen batean parte hartu dutelarik, beren langintza pedagogikoaren alderdiren bat ikertu nahi duten irakasleei eskainiak. Alde horretatik graduondoko ikastaroetan egin dugun espientzia izugarri itxaropen sortzailea izan da.

Jardunaldi eta mahai-inguruak. Esperientziak, oztopoak, irtenbideak eta emaitzak erkatzea hain da garrantzi handikoa arlo honetan ari garenontzat, beharrezkoa izango baita geroan ere horretarako mintzaguneak antolatzea, hala nola jardunaldiak eta mahai-inguruak.

Aholkularitza

Horixe duzue berrikuntza-proiektua finkatzean arreta berezia merezi lukeen beste arlo bat. Ikastetxeen zalantzei erantzutea eta berrikuntzaren gorabeheretan aholku ematea, curriculumaren ezarpen ondorengo jarraipenaren alderdi garrantzi handikoak dira.

Eta, datozen urteetako beste egiteko asko aipa bagenitzake ere, hala nola formazio-teknologia berriak, ikastetxeetako zuzendari eta beste ardura-dunei laguntzea, hasierako heziketa berezia hobetzea edo unibertsitatearen eta gure lan-arloaren arteko loturak sortzea, ez noa horretan hastera.

Askok dira geroan gure arreta eskatuko duten eginkizunak. Beraz, ahalegin itzela egin beharko dugu. Asmatuko ahal dugu!

Oharrak

- 1 HABEren arau organikoak onartzen dituen 34/1996 dekretuak, egun indarrean dagoenak zehazten duenez, hizkuntzaren didaktika zerbitzuari dagokio euskaltegietako irakasleen prestakuntzarako eta etengabeko formaziorako planak egitea.
- 2 Dinamika berri bat sustatu nahian, *Heziketa-Ihardungunea* sortu zen HABEn 1993ko maitza-
ren 24an Martin Etxeberria HABeko Zuzendari nagusiak zabalduriko jakinarazpen baten bidez. 1994ko azaroaren 9ko EHAA (213 zenb.) argitaratu zen HABEren Lehendakariaren 1994ko urriaren 7ko Erabakia, Heziketa Sailatala sortzen zuena. Beronen arabera, HABEren egitura

organikoa onartzen zuen martxoaren 29ko 155/1994 Dekretua garatzen zen. Azkenik, eta aurrekoari jarraiki, arduren banaketa eta lankideen atxikimendu funtzionalak indarrean jartzen zituen erabakia zabaldu zuen HABEren Zuzendari nagusiak 1994ko azaroaren 11an. Eta arau organikoak aldatu ziren arren (34/1996 Dekretua, otsailaren 13koa), esparruari behar besteko garrantzia emateko, *Prestakuntzako Arduraduna* lanpostua sortu zuen Eusko Jaurlaritzak 1997an (226/1997 Dekretua, urriaren 14koa, EAEko Administrazioaren sailetakoa eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartzen dituzten dekretuak aldatzeari buruzkoa - 1997-10-31ko EHAA, 209. zenb.).

Bibliografia

Bergara, J. 1992. Irakasle ohien eragina. *Zutabe* 28: 29-31.

Bergara, J. 1993. ZUTABE: hamar urte *Zutabe - Monografiak* 2: 3-18.

Cook, G. 1989. *Discourse*. Oxford: Oxford University Press.

Covey, S. 1996. *Los 7 hábitos de la gente altamente efectiva - La revolución ética en la vida cotidiana y en la empresa*. Barcelona: Paidós.

Gibbons, J. 1989. Instructional Cycles In: *English Teaching Forum* XXVII/3: 6-11 eta *Hizpide* 37: 106-117

Lamb, M. 1995. The consequences of INSET. *ELT Journal* 49/1: 72-80.

Larsen-Freeman, D. 1987a. "From Unity to Diversity. Twenty-Five Years of Language-Teaching Methodology" In: *English Teaching Forum* 25/4: 2-10. Eta *Zutabe* 32: 79-97.

Larsen-Freeman, D. 1987b. "The Dimensions of Language: Form, Pragmatics and Meaning" In:

TESOL Spain (Udaberriko alea) eta *Zutabe* 17: 85-89.

Swan, M. 1996. "Language teaching is teaching language". In: *IATEFL - Annual Conference Report - Talks, workshops and plenaries 1996* eta *Hizpide* 42. 86-97

Ur, P. 1996. Can teaching be taught? (IATEFL- argitaratu gabea).

Ur, P. 1997. Are language teachers born or made. (IATEFL).

Widdowson, H. 1979. *Explorations in Applied Linguistics*. Oxford: Oxford University Press.

Widdowson, H. 1987. "A rationale for teacher education" in Council of Europe Project No. 12. Council of Europe: Strasbourg.

Willis, D. 1993. "Syllabus corpus and data-driven learning" In: *IATEFL - 1993 Annual Conference Report*: 25-32 eta *Hizpide* 39: 104-122.

Woodward, T. 1988. "Splitting the Atom - A Way of Avoiding Consumerism in Language Teacher Training" In: *English Teaching Forum* XXVI: 4; *Zutabe* 26: 23-27.

